


2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

# Euskara eta literatura

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



**EUSKAMPUS**

Nazioarteko Bikaintasun Campus  
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko UZTAILA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

- Lehenbizi TESTU bat duzu.
- Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.
- Aukera bakoitzak hiru atal ditu:
  - Irakurmena
    - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
    - Gaia eta laburpena (2 puntu)
  - Hizkuntzaren/literaturaren inguruan (1 puntu)
  - Idazlana (5 puntu)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko UZTAILA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

## Harria eta gizakia

Harria eta gizakia. Gizakia eta harria. Lehenengo gizon-emakumeak lehen pausoak ematen hasi zirenetik, bizirik dirauen maitasun istorioa. Mende hauetan guztietan zehar harreman hori hamaika eratan gauzatu da. Lehenengo gizakiek, adibidez, harrien artean, kobazuloetan, aurkitu zuten aterpea. Leizeetan, harriak erabiltzen zituzten sua pizteko ere. Lagun bat hiltzen zenean, harrien azpian lurperatzen zuten, eraikitzen zituzten trikuharrien oinetan. Urteak joan, urteak etorri, maitasunaren sugarrak piztuta jarraitu du. Erdi Aroan, esaterako, harriz eraikitzen zituzten gazteluak, eta eraitsi ere harriz eraisten zituzten, katapulten bidez.

Euskal Herriak hasieratik egin du maitasun istorio honen aldeko apustua, eta bizilekuak eraikitze eta lanerako tresna gisa erabiltzearekin batera, euskal nortasunaren zati bihurtu da harria. Hau guztia liburuei eta filmi esker ezagutzen dugu. Ezagutza bide hau izan da, orain arte, ohikoa. Baina Iñaki Perurena harri-jasotzaileak beste modu batez kontatu nahi digu mendez mendez bizirik iraun duen harreman hau. Izan ere, istorio honek bildu ditzakeen hitzen ordez, berak ongi ezagutzen duen adiskide min bat hautatu du: harria. Hiru hamarkadatan harri-jasotzaile ibili ostean, bere lagunekin zerbait berezia egiteko unea iritsi zela erabaki zuen, eta harriek gure historian idatzi dituzten pasarteak bildu nahi izan ditu Leitzako Peru Harri museoan. Sei urtetan aritu da, Iñaxio semearen laguntzarekin, Gorritinea baserriko bizilagun berriei, pixkanaka-pixkanaka, bizia ematen. Artistak adierazten duenez, “*bihotzean jaio, buruan hazi eta eskuekin landu dira*” artelanok.

(Arkaitz Almortza, **Aizu** aldizkaria. Moldatua)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko UZTAILA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

**A AUKERA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

### **A.1.- IRAKURMENA**

ULERMENA (2 puntu)

(Aukeratu erantzun egokiena. Aski duzu zenbakia eta letra jartzea: 1.a; 2.d;...)

#### **1. Nola gauzatu zuten lehenengo gizon-emakumeek harriarekiko lotura?**

- a) Harrizko kobazuloak eginez.
- b) Harrien artean babeslekua aurkituz.
- c) Kobazuloa berotzeko harrizko labeak eraikiz.
- d) Norbait hiltzean, harrizko gurutzeak trikuharrien oinetan jarriz.

#### **2. Harria ...**

- a) Kobazuloetan aurkitzen zuten.
- b) Euskal Herrian apustua izan da.
- c) Gure historian oso garrantzitsua izan da.
- d) Liburu guztietan eta filmetan agertzen den tresna izan da.

#### **3. Testuak dio...**

- a) Iñaki Perurenak istorio asko idatzi dituela.
- b) Iñaki Perurenaren lagun mina hitza dela.
- c) Perurenaren lagun mina harria dela.
- d) Iñaki Perurena hiru hamarkadatan lagunekin ibili dela.

#### **4. Zergatik ireki du Iñaki Perurenak Peru Harri museoa?**

- a) Harriez idatzi nahi duelako.
- b) Harriekin herriz herri jasotzen ibili delako.
- c) Gorritinea baserriko bizilagunekin bizi nahi izan duelako.
- d) Historian zehar harriek idatzitakoa bildu nahi izan duelako.

#### **5. Iñaki Perurenak Peru Harri museoa eraiki du...**

- a) harriei bizia emateko.
- b) harriaren historia bestela kontatzeko.
- c) harriak Gorritinea baserrian ondo gordetzeko.
- d) Inaxio semearen laguntzarekin Gorritinea baserriari bizia emateko.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko UZTAILA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

**GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)**

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) Harriaren garapena
- b) Harriaren ibilbidea historian zehar.
- c) Euskal Herrian dauden harriak.
- d) Harrien eta harri-jasotzaileen arteko harremana.

**IDEIA NAGUSIAK**

(Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak)

**A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)**

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- a) Ehun urteko denbora tartea.
- b) Artearen, historiaren, teknikaren, jakintzaren aldetik interesa duten gauzen bildumak, gordetzeko eta jendaurrean erakusteko helburuaz, biltzen eta sailkatzen diren lekua edo etxea.
- c) Haitzulo guztiz sakona.
- d) Eder lanean aritzen den pertsona.

**A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)**

ESKAERA

Klasean Guggenheim museora joateko asmoa duzue. Egiozu zure ikastetxeko zuzendariari eskaera azalduz zer ikusiko duzuen eta zergatik antolatu nahi duzuen bisitaldia.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2012ko UZTAILA

**EUSKARA ETA  
LITERATURA**

**B AUKERA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2012

**LENGUA VASCA Y  
LITERATURA**

### **B.1.- IRAKURMENA**

ULERMENA (2 puntu)

(Erantzun galdera hauei)

1. Zein da testuan aipatzen den maitasun istorioa?
2. Zergatik bihurtu da harria euskal nortasunaren zati?
3. Nola kontatu nahi du Iñaki Perurenak harriekin izan duen harremana?
4. Zergatik eraiki du Iñaki Perurenak *Peru Harri* museoa?

GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA ( Aukeratu egokiena)

- a) Harriaren garapena.
- b) Harriaren ibilbidea historian zehar.
- c) Euskal Herrian dauden harriak.
- d) Harrien eta harri-jasotzaileen arteko harremana.

LABURTU TESTUA (gehienez, 5-7 lerro)

### **B.2.-. HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)**

(Azaldu ondoko esaldi hauen esanahia)

1. "Harria eta gizakia. Gizakia eta harria"
2. "...bere lagunekin zerbait berezia egiteko unea iritsi zela erabaki zuen"
3. "...harriek gure historian idatzi dituzten pasarteak..."
4. "...*bihotzean jai*o, *buruan hazi* eta *eskuekin landu dira*"..."

### **B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)**

**Iritzi artikul**u bat prestatu behar duzu egunkari baterako.

Gaia: Museoak eta garapena

Ondorengo gidoia garatuz **iritzi artikul**u bat prestatu behar duzu egunkari baterako:

- Turismoa erakartzeko, museoak non-nahi.
- Museoak: eskualde bat garatzeko irtenbidea.
- Museoak: turismo kulturala.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### EUSKARA ETA LITERATURA / LENGUA VASCA Y LITERATURA

#### A1/B1 IRAKURMENA (4 puntu guztira)

Bi ariketa mota daude, **ULERMENA (2 puntu)** eta **GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)**.

#### ULERMENA:

Ariketa hauen helburua idatzizko ulermena neurtzea da. Beraz, ariketa itxia bada, hau da, aukera anitzeko galderak edota egia/gezurra erakoak kasu, erantzun zuzenak emango zaizkio zuzentzaileari, zuzendu ahal izateko. Erantzun okerrengeatik ez da zigorrik izango.

Galde-erantzun erako ariketetan, ematen den erantzuna testuaren beraren kopia hutsa denean, galdetzen denari erreparatu gabe, zigortu egingo da.

Zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzen ez dituzten akats gramatikalak egitea ez da zigortuko.

#### GAIA ETA LABURPENA

**Gaia:** lau-pabost esaldi aurkeztuko zaizkio ikasleari, horien artean aukeratu dezan bere iritziz testuko gaia laburbiltzen duena. (**Guztira 0,5**).

**Laburpena / Ideia nagusiak:** Laburpenean, ikasleak sintetizatzeko duen gaitasuna neurtuko da. Ikasleak sortzen duen testuak "josia" behar du. Testuaren laburpena egitean estilo zuzena eta zehar estiloa, guztiak onartuko dira. Beraz, ez da txartzat emango "autoreak dio" edo "idazleak dio" eta horien antzeko egiturak erabiltzea.

Ideia nagusiak zein diren esateko orduan, berriz, testuan agertzen diren jarrera, ikuspegi edo argudio-ildo garrantzitsuenak antzemateko gai den neurtuko da. Ideiak ez dira bata besteari lotu behar eta eskema baten modura aurkeztuko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagma egitura erabiltzea eta bai perpaus-egitura erabiltzea ere.

Hitz batean, forma kontuez haratago, testua ulertu duten antzematea da helburua. Horrexegatik, *Laburpenean* eta *Ideia nagusiak* adieraztean ere, ez da zigortuko zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats txiki batzuk edo eta gaizki ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.

(1,5 guztira).

#### A2/B2 HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu guztira)

Zuzenak diren erantzunak baino ez dira kontuan hartuko.

Atal honetan ere, aurreko ataletan bezala, ortografia edo gramatika hutsei dagokienez irizpide berberak balio dute. Hala ere, eginkizun den ariketaren funtsari dagokion egituran ez da ontzat emango inolako hutsik. Esaterako, ariketa batean



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

perpauis erlatibo bat sortu behar bada, nekez emango da  $-(e)na$ -ren ordeiz,  $-(e)la$  bat..

### A3/B3 IDAZLANA (5 puntu guztira)

Idazlanaren kalifikaziorako kontuan hartuko da ea eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, beharrezko informazioa aukeratu duen, era logikoan ordenatu eta lotu duen, eta hizkuntza baliabide aberatsak, askotarikoak, zehatzak eta zuzenak erabili dituen.

Zuzentzeko erabiliko diren irizpideak eta maila bakoitzari dagokion adibidea

#### 4-5 puntu:

- ✓ Testua, eskaturikoari lotzen zaio eta ondo antolaturik dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak ongi loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak erabiltzen ditu.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira

*“XV. mendean Guttenberg-ek inprenta asmatzeak mesede itzela egin zion garaiko kulturari. Garai hartako idazleak ez ziren negarrez hasi haien lanak mundutik barreiatzean; ordea, izugarri poztu ziren haien ospea eta ohorea handituko baitziren. SGAE handik egotekotan Inkisidoreen antzera arituko zen inprenta ilegalen bila, kanonen bat kobratzeko edo!”*

#### 3-4 puntu:

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistematikoak.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.).
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen da, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren

*“Horrela, errezagoa bihurtu da klaseako lanak egitea, beste pertsonekin informazioa alderatzea blog-etan... Baina saretik liburuak, musika, jokoak...jaisterakoan egileen eskubideekin topatzen gara, eta, horrekin batera, Egileen Elkartearekin (SGAE). Hauek haien lanak Internetetik jaso ahal izatearen kontra protestan dabilta, sarean dauden web orriak musutruk baitira usuarioentzat eta, horregatik, kexatzen dira haiek, jendeak ez ditu dendetan erosten.”*

#### 2'5-3 puntu:

- ✓ Idatziak zenbait akats ez sistematiko du edukian edo forman. Gabeziek, nolana ere, ez dute oztopatzen testua ulertzea.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen ditu orokorrean.





## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- ✓ Argudioak edo ideiak urriak dira edo ez daude guztiz garatuak edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia eta kohesio arazoak baditu ere, hauek ez dute ulergarritasuna oztopatzen.
- ✓ Ortografia eta puntuazioan akats txikiak ditu.

*“Ni XXXXXXXXXX naiz eta musikaria naiz. Pasaden astean Interneten sartu nintzenean ikusi nuen edonork nire abesti berrienak jaits ditzakeela ordaindu barik. Momentu hartan, oso kezkatuta geratu nintzen pentsatu nuelako nire karrera profesional amaituko zezakela, ez zait gustatzen lan egitea dohanik.”*

### **1-2'5 puntu:**

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akatsak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak egiten ditu.
- ✓ Ulergarritasuna oztopatzen duten akatsak ditu tarteka.
- ✓ Ortografian, aruntak diren hitzetan oinarrizko akats larri batzuk egiten ditu, baina ez sistematikoak.

### **1-ETIK HURBIL DAGOEN TESTU ZATIA:**

*“ Nahiz eta gustatzen zaidan jendeak entzun nauela gustatuko litzaidake legearen bidez izango zela. Horregatik, zure laguntza eskatzen dizut zeren eta uste dut arazo honetan neurri gogorak ipiniko behar direla. Hala ere, ez dut nahi jendeak entzuteari usten nauela neurriengatik. Orduan, ez dakidanez zer egin dezaket zure aholku edo emaitza entzutea gustatuko litzaidake.”*

### **2,5 ERA HURBILTZEN DEN TESTU ZATIA:**

*“Nire ustez, ulertzen dut diskoak garestiegiak direla baina beste lagun musikarien iritsia Internetetik musika jaitea debekatu behar dela da baina nik uste dut zure taldeak (SGAE) ipin dezake lege bat esaten ordaindu behar dela Internetik kultura jaisteagatik.”*

### **0-1 puntu:**

- Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.
- Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akats nabarmenak egiten ditu.
- Nabarmen geratzen dira komunikazio eta hizkuntzari buruzko gabeziak.
- Nabarmena da eskatutako hitz kopurura ez dela iritsi.
- Oinarrizko akats gramatikal larri ugari egiten ditu (ergatiboa, komunztadura, kompletiboak...).

*“ Nik ez daukat ospetsurik; baina gustatuko nuke nire abestiak ospetsua daukate. Zergatik? Deno guztiek hona, nire musika entzun ahal izango lukete. Horregatik, nire abestiek saretik jaitsi behar dute. Munduko jendea nire musika entzun behar dute, ona delako.”*



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### OHARRAK:

- Gainditu ahal izateko, testua eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.
- Azterketa bat suspenditzeko dagoen argumentu bakarra hitz kopurua denean, oso nabarmena izan behar da hutsegite hau.
- GOGORATU honako hau idazlanaren emaitza ipintzean:

| <b>IDAZLANAREN<br/>BALIOA</b> | <b>1-ETIK 10-ERA KO ESKALAN</b> |
|-------------------------------|---------------------------------|
| 5                             | 10                              |
| 4,5                           | 9                               |
| 4                             | 8                               |
| 3,5                           | 7                               |
| 3                             | 6                               |
| 2,5                           | 5                               |
| 2                             | 4                               |
| 1,5                           | 3                               |
| 1                             | 2                               |
| 0,5                           | 1                               |



## **A AUKERA**

### **Nora joan zaizkizu izenak**

#### **(A.1. eta A.2. ariketen erantzun-gida)**

##### A.1.- IRAKURMENA

##### ULERMENA (2 puntu)

|                   |     |
|-------------------|-----|
| Erantzun egokiak: | 1 b |
|                   | 2 c |
|                   | 3 c |
|                   | 4 d |
|                   | 5 b |

##### GAIA ETA IDEIA NAGUSIAK (2 puntu)

GAIA ( Aukeratu egokiena. 0.5 puntu) (A eta B aukeretan)

Erantzun egokia: b

##### A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

##### AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK (A eta B aukeretan)

|                   |   |
|-------------------|---|
| Erantzun egokiak: | 1 <i>mende</i>                                    |
|                   | 2 <i>museo</i>                                    |
|                   | 3 <i>leize / kobazulo</i> (biak dira onartzekoak) |
|                   | 4 <i>artista</i>                                  |

Oharra: onartzekoak izango dira bai lema soila, bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.